

Euskal haur gazte literaturaren sistemaren eraketa¹

Xabier Etxaniz Erle

Manu Lopez Gaseni

Hizkuntza eta Literaturaren Didaktika Saila


Euskal Herriko Unibertsitatea

Haurrak, bere bizitzako lehenengo urteetan, etengabeko informazioa jasotzen du; bere garapenerako behar-beharrezkoa eta garapen horren oinarria izango duen informazioa. Hau, era eta iturri ezberdinetatik jasotzen du, eskolan, etxean, kalean dabilenean, jolasetan, eguneroko ekintza ugarietan. Horietako bat, zalantzarik gabe, irakurketa dugu. Haurra liburuen bidez joaten da bere nortasuna eraikitzen, mundua ezagutzen, hizkuntza hobetzen, plazera eta estetikaren arloan murgiltzen...

Guri, literaturaren didaktikan kezkatu gaudenoi, haurra, liburua eta heziketaren arteko hirukia interesatzen zaigu. Testu atsegin eta plazerezko horien bidez sorturiko heziketa, alegia; edo gure kasuan zehatzago izanik, euskarazko haur eta gazte literaturak eragindakoa. Helburu horretara iristeko, ordea, bide luzea dugu egiteko. Alde batetik haur eta gazte literatura (HGL) bera oso berria delako nazioartean, arlo horri buruzko ikerketa gutxi egin direlako eta are gutxiago horren didaktikari buruzkoak. Beste aldetik, euskararen kasuan azterketa horiek egiteko oinarri den corpusa falta zelako. Azken urteotan, ordea, egoerak aldaketa handia izan du eta 90eko hamarkada honetan HGLren sistema literarioa sortu da (ikus literatur (poli)sistemari buruz Lopez Gaseni, 2000; 53 eta hurrengoak), sistema hori finkatzeko oinarritzko urratsak eman dira. Eta hain zuzen horixe da lan honetan azalduko duguna, euskal HGLren sistemaren eraketa joan den hamarkadan. Ondoren etorri beharko dira, jakina, gure HGL honen azterketa didaktikoak, lortu dugun corpus honen erabilera didaktikoa aztertu beharko duten lanak, eta HGL-eskola edo HGL-heziketa binomioen arteko zer nolako harremana eman behar den ikertuko duten lanak. Oraingoz, lehen urratsean gaude, corpus horren azterketan, zer dagoen, nola dagoen eta norantz doan euskal HGL.

1960 baino lehen liburu bakar batzuk argitaratu ziren haurrentzat euskaraz, eta gehienak helburu ez-literarioak bultzatuta (erlijio liburuak, irakurtzen ikastekoak, euskararen aldeko ideiak bultzatzeko eginikoak, eta abar). 60ko hamarkadan hasi ziren benetan literatura lanak argitaratzen haurrentzat (Etxaniz, 1997); hala ere oso liburu gutxi ziren eta eragin txikia izan zuten literaturaren sisteman, 1900 eta 1960 bitartean haurrentzako 35 liburu argitaratu ziren; 1960ko hamarkadan, berriz, 44 liburu; hurrengoan 242 izan ziren euskaraz plazaraturiko haur eta gazte liburuak; 80ko hamarkadan 1.477ra igo zen kopuru hori, eta azken hamarkadan, berriz, 2.962 izan dira euskarazko HGLn plazaraturikoak. Kopuruak garrantzitsuak izanik, are ganantzitsuagoak azterketarako, ikerketarako eta aukeraketarako liburu kopurua dugulako lehendabiziko aldiz, hori baino inportanteagoa da gertakari horren inguruan emaniko aldaketa, hots, nolako eragina izan duen HGLk literatura sistema barman eta nola joan den, apur-apurka, bere sistema osatzen.

Azterketa honetarako erabiliko dugun metodologia, arestian aipatu den bezala, Itamar Even-Zohar irakasle israeldarrak proposaturikoa da (1990). Hark Jakobson-en komunikazioaren eskema hartzen du oinarritzat, eta bere zeregin berrietara egokitzen ditu sei elementuak. Hortaz, literatur (poli)sistemaren osagaiak honako hauek dira (parentesi artekoak Jakobson-en terminologiari dagozkio):



Eta honexek dira aztertuko ditugun osagaiak, esan dugun bezala azken hamarkadako euskal HGLri aplikaturik.

KONTSUMITZAILEAK

1974an 27.000 haur zeuden matrikulaturik ikastoletan (irakaskuntza euskaraz eskaintzen zuen ikastetxe mota bakarra); 1980an, berriz, 65.000 ziren, eta hurrengo urtetik aurrera, Eusko Jaurlaritzak Elebitasun dekretua bultzatu zuenetik, Euskal Autonomi Erkidegoko ikasle guztiek euskaraz edo euskara ikasten dute (eta euskal literaturaren kontsumitzaileak ditugu, nahiz eta zenbait kasutan behar baino askoz maila apalagoetan). Nafarroan ere azken urteotan D ereduak goraka egin du etengabe, eta Iparraldean hazkunde apalagoa eman bada ere, igoera izan dugu. Hiru errealitate hauek, ordea, ondorio garbi bat adierazten dute, gaur egun bada kontsumitzaile (edo irakurle) multzo handia, badira HGL kontsumi dezaketen Irakurleak.

Irakurle hauen gustuei eta ohiturei buruzko ikerketa gutxi egin dira. Ezagunena Mari Jose Olaziregik eginikoa, Euskal Gazteen Irakurzaletasuna (1998), gazteen gustu eta maiztasunari buruzko azterketa soziologikoa. Berriz, egin gabe dauzkagu irakurle horiek nola irakurtzen dituzten, ulermenenari buruz, edo Lehen Hezkuntzako haurren ohiturei buruzko ikerketak, adibidez.

Hala ere, 90eko hamarkadan zehar lortu dugu "irakurle homologatua" izatea (esaterako, liburuetan hiztegitxoen beharrik gabe ibiltzen dena, eta ez Sor eta Itzul sailetakoa hasierako liburuetan gertatzen zen bezala), itzulpenetan bertsio osoak irakurtzen dituen, irudi liburuetatik gazte literaturaraino gai, estilo eta genero ezberdinen artean aukera egin dezakeen irakurlea.

Kontsumitzaile multzo handia dugu, kalitatezko irakurlea (euskaraz erdaraz baino hobeto irakurtzen duena, euskaraz irakurtzea aukeratzen duena), eta horren adibide garbienak argitalpenetan beraietan dauzkagu. Desagertuak dira liburuetan irakurleari jarritako "laguntzak", eta desagertu dira -edo gutxitu- itzulpenetako bertsio sinpleak, adaptaketa pobreak.

EKOIZLEAK

Lehenago aipaturiko liburu gehitze eta kontsumitzaile multzo handi horrekin batera izan ditugu produkzio ekoizleen, idazle eta ilustratzaileen, ugaritzea eta profesionalizetzea; nahiz eta datu hauek berez ez izan derrigorrean onak ez txarrak. Baina egia da arlo honetan zenbait aldaketa nabarmen gertatu direla:

-Helduen literaturako idazleak eta HGLko idazleak berberak dira kasu askotan; are gehiago euskaraz helduentzat idazten duten askok eta askok HGL ere egin dute esparru bien arteko muga (baldin bazegoen) hautsiz. Horrela J. K. Igerabide, P. Zubizarreta, B. Atxaga, J. M. Irigoien, Juan Garzia, Joserra Garzia, A. Epalza, P. Aristi, A. Arana, F. Juaristi, A. Urretabizkaia, J. Iturralde, B. Bilbao, J. Cillero, A. Lertxundi, eta beste hainbeste ikus dezakegu helduen eta haur eta gazte literaturaren bildumetan aipatuak.

-Idazleen helburu nagusia literarioa da; edo beste modu batean esanda, aurreko hamarkadetako "euskara garbian idatzitako testuak izatea", "euskaraz irakurtzeko zerbait izatea" eta antzekoen lekuan "liburu interesgarriak", "irakurtzean une atsegina igarotzeko liburuak" eta horrelako helburuak irakurtzen/entzuten ditugu idazle horien ahotan.

-Azken hamarkada honetan ugaritu da idazleen kopurua. Seve Callejak *La literatura infantil vasca* (1988) bere ikerketan 20 pertsona aipatzen ditu amaieran; hildakoak eta ilustratzaileak kenduta, 10 dira agertzen diren idazleak eta itzultzaileak. 1998an argitaraturiko *Euskarazko Haur eta Gazte Literatura Idazleak* katalogoan, berriz, 22 idazle agertzen dira, denak hiru obra baino gehiagorekin (eta haiekin batera A. Kazabon, Patxi Ezkiaga, Jon Suarez eta besteren bat edo beste ere agertu beharko zen katalogo horretan). Gaur egun, Euskal Idazleen Elkarteko 50 idazle baino gehiagok idatzi du HGLn.

-Ilustratzaileak ere asko ugaritu dira eta Seve Callejak aipatzen zituen bi haiez

gain (J. Lucas eta A. Olariaga) beste 22 ilustratzaile agertzen dira *Euskarazko haur eta gazte literaturaren ilustratzaileak* katalogoan (Arabako Foru Aldundiak 1997an kaleratua), eta horiei gehitu beharko genizkieke Elena Odriozola bezala azken urte hauetako ilustratzaile berriak.

-1990 baino lehen, bestalde, Atxaga genuen idazle profesional bakarrenetari-koa (beste batzuek argitaletxe batean lan egiten zuten, Lertxundik bezala). Gaur egun, ordea, prentsako kolaborazioekin, bestelako hitzaldi eta emanaldiekin, eta literaturaren inguruko antzeko ekintzekin osatuz, badira zenbait idazle (P. Zubizarreta, F. Juaristi, P. Aristi, J. M. Irigoien, A. Urretabizkaia, A. Lertxundi, A. Arana, adibidez) eta ilustratzaile batzuk (J. Mitxelena, A. Olariaga, E. Odriozola, M. Valverde, J. Zabaleta, eta abar) literatura produktiotik bizi direnak.

Beraz, horregatik guztiagatik esan dezakegu gaur egun badela idazle eta ilustratzaile talde garrantzitsua, bere obragatik eta obren kopuruagatik.

BARNEKO ETA KANPOKO MERKATUA

Aipatzen ari garen aldaketa honen datu adierazgarrienetariko bat, zalantzarik gabe, eta arestian komentaturiko profesionalizazioarekin zerikusi estua duena, merkatuaren sendotzea izan da. Oraindik ere Eusko Jaurlartizaren diru-laguntza (edo liburutegietarako ale kopuru handi baten erosketa ziuerra) baldin badago ere, nabarmena da euskarazko HGLk duen erakarpena, erakarpen ekonomikoa alegia; eta horren adibide argia dugu Euskal Herritik kanpoko argitaletxeen presentzia -gero eta handiagoa eta sendoagoa- geure artean. Azken urte hauetan Everest (euskal bertsiotan Aizkorri), Alfaguara (Alfaguara-Zubia), S.M., Anaya (Anaya-Haritz), Edebé, Kalandraka, Susaeta, eta beste argitaletxe batzuk euskal merkatuan sartu dira.

Produkzioak, edo titulu kopuruak, gora egin du euskal liburugintza orokorrean bezala, eta urte bateko datuak aztertzearen, 1996an euskaraz argitaraturiko liburuak honela sailka ditzakegu:

Heziketa liburuak % 30,2
Haur eta Gazte literatura % 26,5
Helduen literatura % 20
Gizarte zientzietakoak % 16
Bestelakoak % 7,3

Ikusten den bezala HGLk produkzio guztiaren %25a du gaur egungo euskal liburugintzan (inguruko herrialdetako portzentaia baino handiagoa den kopurua; gaztelaniaz, esaterako %10a da, eta katalanez, aldiz, ez da %20ra iristen). Jakina, ugaritze honek, liburu kopurua hain handia izateak eta urtero euskaraz hainbeste izenburu berri plazaratzeak badu ondorio txar bat ere: gaur egungo tiradak murriztu egin dira, horrela 80ko hamarkadaren hasieran edozein libururen 4000 ale egiten ziren bitartean bere lehen argitalpenean, gaur egun 1500 edo 2000 egin ohi da (dena dela, inprimategietan emandako aurrerakuntzek ere badute zerikusirik tiradak laburtzearekin).

Aurretik aipaturiko 1996ko produkzioarekin jarraituz, HGLren liburugintza

honela banatzen da:

Sor lan berriak % 16,9
Itzulpen berriak % 58,6
Berrargitalpenak % 24,5

Eta ikus daitekeen bezala itzulpenak du produkzioaren pisurik handiena, hala ere, sorkuntza da gehien saltzen dena eta gehien berrargitaratzen dena. Oraindik sor lanak lehenasuna du gure merkatuan.

Beste aldetik, kanpoko liburuak euskaratzen ditugun bezala, gero eta handiagoa da kanpoko merkatuetan euskal HGLren presentzia. Euskal argitaletxeetan arrakasta izan ondoren edo estatuko argitaletxeak euskaraz argitaratzearekin batera beste hizkuntzetan plazaratzen dutelako, kontua da urte gutxitan euskal idazlan ugari argitaratu dela erdaraz. 80ko hamarkadan Atxagak, Mariasun Landak, Iturralde eta Lertxundik bakarrik ikusi zuten beren lanen bat edo beste erdaraz; egun, berriz, Karlos Linazasoro, Patxi Zubizarreta, Aitor Arana, Juan Kruz Igerabide, Xabier Mendiguren, Karlos Santisteban edo Jon Arretxe, izen batzuk aipatzearen, irakur daitezke beste hizkuntzetan. Gainera, erdal merkatu horretan izaniko arrakastak ahalbideratu du arestian aipaturiko profesionalizazioa, eta hori baino interesgarriagoa dena, euskal literaturarekiko interesa. *Behi euskaldun baten memoriak* Alemanian izaniko arrakasta edo Mostloa naaiz... gaztelaniaz ditugu horren adibide garbiak.

Alde horrelatik oso adierazgarriak dira kanporatu diren liburuen kopuruak. Honela, 1980ra arte ez zen euskal HGLko libururik itzuli beste hizkuntzetara, 80ko hamarkadan, berriz, lan batzuk erdaratzen ari ziren. Hona hemen, zenbakietan, 1980ko hamarkadaren laburpena.

Erdaraturiko euskal HGL.

Idazleak: 4

Itzulitako obrak: 11, baina bi bitan, beraz, 9 obra.

Obra horiekin eginiko edizioak: 20.

Edo, beste modu batean adierazita, urtez urte:

Urtea	Edizioak	Liburuak
1980	0	0
1981	0	0
1982	0	0
1983	3	1
1984	5	2
1985	1	1
1986	0	0
1987	0	0
1988	4	2
1989	7	5
Denetara	20	11 (baina bi bitan daude)

Hurrengo hamarkadan, berriz, egoera dezente aldatu zen. Idazle kopuruan,

erdaraturiko obretan, eta batez ere obra horien edizio kopurua asko handitu zen. Euskal literatura kanporatzen hasten dela esan genezake, idazleren bat edo beste izatetik (80ko hamarkadan gertatu zen bezala) euskal literatura bera da kanpoan, apurka egia esanda, ezagutarazten dena.

Hona hemen, beraz, 1990etik 2000. urtera euskal HGLk izan duen zabalkundea erdaraz.

Erdaraturiko euskal HGL.

Idazleak: 15

Itzulitako obrak: 58

Obra horiekin eginiko edizioak: 141, horietako lau aurreko hamarkadan ere itzulitakoak.

Edo, beste modu batean adierazita, urtez urte:

Urtea	Edizioak	Liburuak
1990	13	6
1991	4	2
1992	10	6
1993	6	5
1994	19	12
1995	6	5
1996	13	11
1997	10	7
1998	19	10
1999	17	7
2000	24	14
Denetara	141	85

Hona hemen, 1980tik 2000ra gertaturiko eboluzioa.

INSTITUZIOA

Even-Zohar-en (1990) eskemari jarraituz literaturaren garrantzizko jarduera soziokulturala mantentzearekin zerikusirik duten faktoreekin aurkitzen gara, hots, instituzioarekin. Kritika, argialetxeak, komunikabideak, hezkuntza erakundeak... horiek denek osatuko lukete instituzioa; eta honen gidaritzatza botere-borroka ondo-rioz lortzen da.

Geure artean era askotako komentario eta kritika egiten dira, irakurleei beraiei zuzenean aritzen zaizkienak ("Maritxu Berritsu" irratsaioan egin izan direnak, *Ipurbeltz* aldizkarian, ...) edo bitartekariaren bidez edo bitartekari horri zuzenduriko kritikak. Honako hauek (Vazquez Freire-ren eskeman oinarriturik, 1996) honelakoak izan daitezke:

-Testu laburrak edo erreseinak

-Testu luzeak: -Deskriptiboak

-Subjektiboak

-Analitikoak

Lehenak, testu laburrak, zenbait aldizkaritan aurki daitezke, gai orokorreko aldizkarietan Argia, esaterako, edo bereziki HGLri buruzkoak direnak, CLIJ, *Kukumira*,...

Luzeagoak direnak egunkarietan agertu ohi dira (Javier Rojok El Correo egunkarian egiten dituenak, Felipe Juaristik DVn edo E. Egunkariako Begia gehigarrian argitaratutakoak, adibidez), edo Behinola HGL aldizkarian.

Dena dela, oso tirria da kritika analitikoa (baina akats hau euskaraz ez da HGLn bakarrik gertatzen den gabezia, zoritxarrez) eta han-hemenka sakabanaturik aurki daiteke artikulu, kritikaren bat *Egan*, *Psicodidáctica*, *Sancho el Sabio*, Hegats eta horrelako aldizkari ezberdinetan. Hori bai, gure artean botere-borroka txikia delako, edo HGLk sistemaren periferiatik erdialderantz jo duelako euskaraz, onartu behar dugu HGL ez dela bigarren mailako produktutzat hartzen. (Marijose Olaziregik - 1999- maila berean aztertu zituen Arantxa Urretabizkaia eta Mariasun Landa bere Intimismoaz haraindi: *Emakumezkoek idatzitako Euskal Literatura* ikerketan; Gasteizen 2000ko otsailean eginiko Euskal Kritigintzaren Jardunaldietan HGL, narratiba edo saiakeraren pare aztertu zen. Jakina, oraindik ere zenbait ikerketatan edo historialan ez da HGL kontuan izaten, baina gutxienekoak dira.)

Instituzioaren beste osagarri bat argitaletxeak ditugu. Gauregun ia argitaletxe guztiek (Susa eta Gaiak kenduta gainerako guztiek) argitaratzen dituzte HGL libururuak. Are gehiago, badira HGL bakarrik argitaratzen duten etxeak (Tartalo edo Kalandraka adibidez). Gainera bilduma ugaritze eta sailkatze handia gertatu da. Elkarlanean argitaletxean, esaterako, Itzul eta Sor sailek betetzen zuten esparru hartatik bost sail edo azpisail sortu dira (Xaguxar horiak, urdinak, berdeak eta gorriak, eta Branka saila). Horiez gain adin horietarako bestelako bildumak ere sortu dituzte, Maxi, Apirila, Eta zer?, Kuku,...alegia, merkatua zabaltzearekin batera sailkatze handiagoa eman dela.

Komunikabideetan ere oihartzun zabalagoa dauka HGLk. Inguruko hizkuntzetan edo kulturetan baino askoz zabalagoa, esango genuke. Horren adibideak dira "Sautrela" telebista saioan eginiko elkarrizketak (P. Zubizarreta, J. K. Igerabide,...) edo erreportajeak (HGLri buruz, orokorrakoak HGL kontuan izanik, eta abar); liburuen aurkezpenek duten isla prentsa idatzian, Argia, Nabarra, HABE, Aizu edo Jakin bezalako aldizkari orokorretan edo kulturaletan HGL liburuen komentarioak, artikulak, monografikoak,... El Correo eta Diario Vasco egunkarietan komentatzen diren liburuen artean HGLk duen presentzia, edo irratietan ("Komatxo artean" irratsaioan, esaterako).

Adierazgarria izan da arlo honetan Frankfurteko azken liburu-azokan euskal ordezkarri gisa Atxaga eta Mariasun Landa joatea (bigarren hau HGLn berezituriko idazlea izanik).

Erakundeen aldetik, edo instituzioen aldetik ere aurrerapauso garrantzitsuak eman dira azken urte hauetan. 1986ko hitzaldi batean (Etxaniz, 1986) Euskal Herrian HGL liburutegi bat ere ez zegoela salatzen genuen. Orain, aldiz, liburutegi gehiene-

tan hurren txokoa egoteaz gain badira zenbait HGL liburutegi propioak Andoain, Arrasate, Donostia, eta hainbat tokitan, eta liburuzainek gero eta paper inportanteagoa betetzen dute orientazioaren alorrean eta haur liburuen hautaketa lanean.

Unibertsitatean ere ikasketa plan berriak martxan jarri zirenetik 1994an "Haur Literatura" eta "Haur eta Gazte literatura" irakasgaiak daude, eta azken bost urteotan gaiari buruzko ikastaroak Doktorego programetan.

Eta, haur eta gazte literaturan eragina duten faktoreen artean azken adibide gisa, alor horretako literatur lehiaketa ugariak aipa daitezke, eta oso bereziki Eusko Jaurlaritzak antolatzen dituen Euskadi Sariak, non itzulpena eta euskaraz eta erdaraz eginiko helduen literaturaren ondoan HGLko Euskadi Saria ere banatzen den.

Urte gutxi hauetan hainbat aurrerapen izateak gizarteak bultzaturiko ondorioa baino gehiago euskal sistemaren ahuleziarena izan daiteke. Botere-borroka gutxi den esparru batean (boterea bera ere txikia delako) errazagoa baita lorpenak izatea. Dena den, arrazoiak arrazoi, kontua da euskal literaturgintzaren baitan HGL inoiz izan duen egoerarik onenean dagoela.

PRODUKTUA

Aurretik aipaturiko aldaketa edo eboluzio horiez guztiez gain, argitaratu diren testuetan ere, literatura ikuspegi batetik ari garelarik, sendotze nabarmena gertatu da azken hamarkadan. Eta baieztapen hau zenbait adibide argiekin azalduko dugu.

Gemma Lluch irakasle valentziarra (2000) 90eko hamarkadako HGL aztertzean Adams eta Genette-ren teoretan oinarritu eta, hainbat konturen artean, parates-tuei buruz mintzo zen. Hots, liburuetako azaletan agertzen den informazioaz. Guk Mariasun Landaren bi lan ezberdin konparatuko ditugu; alde batetik 1981ean argitaratutako *Amets uhinak* (Elkar, Donostia), eta bestetik 1997an plazaraturiko *Katuak bakar-bakarrik sentitzen direnean* (Anaya-Haritz, Madril). Lehen liburuan izenburuaz gain egilearen izena eta bildumarena agertzen zaizkigu azalean, eta kontrazalean bilduma horretako eta Itzul saileko beste liburu batzuen zerrenda. Liburu barruan ilustratzailearen izena (Txiki Ayestaran) beste informazio berririk ez dugu.

Bigarren liburuaren kasuan, berriz, azalean bilduma, argitaletxea eta egilearen eta ilustratzailearen izenak ditugu liburuaren izenburuarekin batera, kontrazalean argumentuaren hasiera (irakurlea erakarri nahian eraikitako informazioa) eta zein adinetako irakurleei dagoen zuzenduta. Istorioaren amaieran egileari eta ilustratzaileari (hauen argazki banarekin) eginiko elkarrizketak agertzen zaizkigu literaturaz eta liburu honi buruz informazio gehiago izateko.

Aldaketa hau, kontsumitzailea erakartzeko edo informatzeko asmoz eginiko testu eta datu gehitze hau oso nabarmena da argitaletxe eta sail guztietan.

Lehenago aipaturiko produktuaren eboluzioaren beste adibide bat dugu Pello Añorgak idatziriko bi libururen azterketa. *Pottoko* 1984an plazaratu zuen Jokin Mitxelenak ilustratua. 16 urte geroago argitaratu da protagonista berbera duen azken liburua, *Pottokoren otsoa* (hau ere, gainerako guztiak bezala, Jokin Mitxelenak ilustratua). Liburu biek esaldi berbera dute hasieran, baina ikusiko dugun bezala estilo

nahiz egituran aldaketak gertatu dira. Hona hemen liburu bien hasierak:

"Pottoko potokoa da eta baserrian bizi da mendi artean.

Baina herrira jaisten den bakoitzean, barre egiten dio jendeak:

-Pottoko, LURRA TRAGATU!

Pottokok, triste, leihoetara begiratzen du baina leihoetatik ere mandarina ustelak botatzen dizkiote:

-Hartu Pottoko, JAN JAN JAN, JA JA JA!!!

-Pottoko, ZUPATU!

-Pottoko, ZERRIPOT, KURRIN KURRIN...

Pottoko tristeago jartzen da oraindik. Inorekin ez du hitzegiten. Lurretik, bakarrik harri kozkorra brast! ateratzen du eta bakarrik errekan puskatzen du egundalako amorruz:

-"DENAK FIDEO BATZU ZARETE"

-"ZAKILAK"

-"IJITOKAK"

Erreka hotzak ere, zero-zero-zero, erantzuten dio urgeldian barrena, ZERO-ZERO, POTTOKO, ZERO-ZERO.

Pottokok nigar egiten du, inork ikusi gabe. Hortzak estutzen ditu bakarrik. Burua behera du eta serio dago." (Añorga, 1984: 5-7)

"Pottoko potokoa da eta baserrian bizi da mendi artean. Herritik nahiko urrutiko dago Pottokoren baserria, baina gustura bizi da bertan, animalien artean:

nahiz oilo

eta txakur,

nahiz ahuntz

eta behi,

nahiz zerri

eta nahiz ardien artean,

batez ere ardien artean,

beee! eta beee!

ardi guztiakin batera.

Eta bere ardi guztiak nola egoten diren Leungoko hartzaitzetan, bada, egunero-egunero joaten zaie bisitan Pottoko.

Eta ardiak zanga eta zanga, belarra jaten eta belarra jaten ari diren bitartean, ardiekin hasten da hitz egiten:

-Zer, ondo al zaudete?

Eta ardiek erantzun:

-Bai, beee, hemeeen ederki gaudeee.

Pottoko zutik jarri, txistua jo eta Xarpa txakurraren laguntzaz ardi guztiak biltzen ditu." (Añorga, 2000: 5-7)

Bigarren testuaren egitura narratiboagoa da, eta espazioarekin jokatzeko du erritmoa lortzeko, Nahiz eta, nahiz eta, egitura errepikatzean, esaterako. Egileak ardien soinuarekin jolastuz Pottoko eta hauen arteko elkarrizketa eskaintzen digu, umorea eta ironia landuz.

Aurreneko testuan, aldiz, egoera baten inguruko sentipenak transmititzen dira, baina horretarako hizki larrietara jo behar du egileak, alde bietako bakarrizketara. Testuaren erritmoak ere gorabehera handiak ditu eta esaldi oso motzez osaturik dago.

Ilustrazioetan are nabarmenagoa da liburu bien arteko aldaketa. Lehen Pottokoak trazo sendoz eta perspektiba gutxirekin, intentsitate bakarrarekin... eginda dagoen bitartean, azken Pottokoan ilustratzaileak elementu ezberdinak erabili ditu irudiak egitean, hauek gainera oso elaboratuak dira, perspektiba eta ikuspuntu desberdinetatik azalduta, eta hala ere sinpletasunaren enkantua dute.

Pello Añorgaren bi testu horietan bezala, euskal HGLn nabaria da testuen lan-keta estetikoa, protagonistari zuzenean hitz egiten zaio testuari indar handiagoa emateko (*Usoa, hegan etorritako neskatoa*), gertakarien intentsitatea nabarmentzeko ordu gutxi zehatz batzuetan jazotako istorioa kontatzen zaigu (*Nire eskua zurean*) edo ironia puntu batekin (*Xola eta basurdeak*),... poesiak ere gero eta pisu handiagoa du genero moduan (batez ere J. K. Igerabideren *Begi-niniaren poemak eta Egun osorako poemak* eta beste idazlanen ondoren), eta narratiban (*Bide Magikoa, Ortzadarraren kantua, eta abar*). Azken liburu horren pasarte bat dugu adibide garbia: "Zeru berritua atzean zutela den-denak. Zeru añil kolorekoa, urdina eta morearen arteko kolore horrek tindatutako zeru berria. Eta, une batez, iruditu zaio Txorori ortzadarra ere ez ote zen han urrutian sumatzen, lauso samar artean. Eta ezkerreko hatzak dantzan jarri zaizkio berriz. Izter gainean hatzak gora eta behera." (Suarez, 1999: 39).

Produktuaren eboluzioaren hirugarren adibidea dugu liburuetako gaia. 90eko hamarkadan, aurretik erabilitako gaiez gain familiako arazoak (dibortzioa, aita-ama-rekin konpon ezina, aiton-amonen egoera,...), inmigrazioa, maitasuna, gurasoekiko harremanak, arazo psikologikoak, hots, errealismo kritikoa deituriko korronte literarioan koka daitezkeen gaiak azaldu dira lehen aldiz gure artean. Honek guztiak eragin du geure HGLren homologagarritasuna erdaraz, hemen kontaturiko istorio askok kanpoan ere jendearen interesa piztea (ohiko istorioetan askoz zailagoa dena).

Baina hori itzulerako bidaia da, kasu askotan. Izan ere, eta hasieran aipatu dugun bezala, euskal HGLren produkzioaren zatirik garrantzitsuena itzulpenak betetzen du, 90eko hamarkadan ere bai: hiru liburutik bi, batez beste. Eta hori ez da oharkabea pasatzen. Hasiera batean, eskolarako euskal testuen behar handia zegoen garaian hasi ziren egiten itzulpenak (edo egokitzapenak), eta era eta genero askotako testuak euskaratzen ziren, klasikoak eta modernoak. Bada, itzulitako literatura horrek euskal HGL modernizatzearekin zerikusi handia izan duelakoan gaude.

Euskaratutako HGL aztertzeko orduan kontuan hartu beharreko gauza hauxe da: jatorriz beste toki edo eta garai batean idatzitakoa, itzulpenaren bidez, geure sisteman txertatzen dela. Gainera, sorburu sisteman xede jakin batzuekin argitaraturikoa, gurean beste helburu batzuk betetzera etor daiteke, eta, gure sistemaren kasuan, euskal HGL eguneratzen lagundu dutela gauza ukaezina da, oso bereziki narratibaren eremuan. Ikuspegi horretatik, euskaratutako HGL ere euskal sistemaren osagai gisa aztertzea ezinbestekoa iruditzen zaigu.

Euskaratutako literaturak erakusten duen joera, gaur egun, eta 90eko hamarkadan zehazkiago, euskal literatura osoko joerarik normalizatuena dela esan genezake, beste nonbait esan dugun bezala (Lopez Gaseni, 2001: 37): jatorrizko obrak argitaratu eta handik pare bat urtera euskaraz irakur ditzakegu, kasu askotan, eta horrek ohitura onuragarriak erein ditu ekoizle eta kontsumitzaileen artean, ondoren ikusiko dugun bezala.

ERREPERTORIOA

Esan daiteke erreperorioa literatur "kodea" dela, hau da, eta gure kasuan, HGL produzitzeko zein kontsumitzeko jokoan jartzen diren arau eta materialak. Jakobson-en hartan bezala, ekoizle eta kontsumitzaileek erreperorioari buruzko eza-gutza eta adostasun maila ahalik eta handiena izan behar dute.

Erreperorioaren beste izena "tradizioa" da, eta hortaz, sistema gazteetan erreperorioa oso mugatua izaten da, eta alderantziz. Gurean, HGL, jadanik azaldu diren hainbat arrazoiengatik, oso gaztea da eta, ondorioz, berez sorturiko erreperorioa txikia da. Hala ere, arestian produktuari buruz hitz egitean esan dugun bezala, euskal HGL izan da (ahuleziagatik behar bada) itzulpenen sistematikoki hornitu den euskal literaturaren arloa, eta horrek nazioarteko erreperorio aberatsa ekarri du, hala gaien aldetik nola baliabide literarioenetik.

Bestalde, beste literatur tradizio zurrunetan ez bezala, euskal HGLko ekoizle eta kontsumitzaileek bere egin dute, oro har, itzulpenen bidetik etorritako erreperorio hori, ez bakarrik euskal HGL irakurtzearen bidez, baita ikus-entzunezko hedabideetan eta gaztelaniaz egindako irakurketetan jasotako eskema tematiko-narratiboen bidez ere.

Honela, elementu hauen guztien gehitzearekin apurka-apurka literatura sistema eraiki dugu euskal HGLn; baina ez hori bakarrik, Literaturaren sisteman ere, bizitasun horrek, arlo honetan eginiko ikerketek, HGLk duen presentziak periferiatik sistemaren erdigunerantz eraman du euskal Haur eta Gazte Literatura.


AIPATURIKO BIBLIOGRAFIA

- Calleja, S. (1988). *La literatura infantil vasca*. Bilbo: Mensajero- Uni. Deusto.
- ETXANIZ, X. (1986). Haur literaturaren inguruan. *Jakin* 41.
- ETXANIZ, X. (1997). *Euskal Haur eta Gazte Literaturaren Historia*. Iruñea: Pamiela.
- EVEN-ZOHAR, I. (1990). Polysystem Studies. *Poetics Today* 11, 1.
- Lluch, G. (2000). Los noventa, ¿Nuevos discursos narrativos?. *Literatura para cambiar el siglo. Una revisión crítica de la literatura infantil y juvenil*. Salamanca: Fundación Germán Sánchez Ruiperez.
- López Gaseni, M. (2000). *Euskarara itzultako Haur eta Gazte Literatura: Funtzioak, Eraginak eta Itzulpen-estrategiak*. Leioa: EHU.


- Lopez Gaseni, M. (2001). Azken 25 urteotan euskaratutako Haur eta Gazte Literatura. *Behinola*, 4, 31-37.
- Olaziregi, M. (1998). *Euskal Gazteen Irakurzaletasuna*. Bergara: Bergarako Udala.
- Olaziregi, M. (1999). *Intimismoaz haraindi: Emakumezkoek idatzitako Euskal Literatura*. Donostia: Eusko Ikaskuntza
- Suarez, J. (1999). *Ortzadarraren kantua*. Bilbo: Aizkorri.
- Vazquez Freire, M. (1996). Notas sobre literatura infantil y crítica literaria. / *Congreso Nacional del Libro Infantil y Juvenil. Comunicaciones*. Madrid: Asociación Española de amigos del Libro Infantil y Juvenil.

1 Lan hau 1/UPV 00051.154—H-13927/2001 ikerketa-proiektuaren zati bat da.


1.




2.




3.




4.




5.



6.



7.



8.

